

**B eranskina: Parte-hartzaileek (hezitzaileen euskarazko eredia) betetzeko sortutako galdesorta**

**0-3 ETAPAREN INGURUKO GALDETEGIA**

**Parte-hartzailearen datuak:**

Adina: 20-35  36-45  46-55  +55

Sexua: Emakumea  Gizona

Ikasketak:

Haur Hezkuntzako Gradua

Haur Hezkuntzako goi-mailako zikloa

Lehen Hezkuntzako Gradua

Beste batzuk: \_\_\_\_\_

Lanean daramazun urte kopurua (años en activo): \_\_\_\_\_

Okupazioa: \_\_\_\_\_

Hezitzaile bezala jarduten dut: Haur Eskola batean  Eskola batean

Zentroa: Publikoa  Pribatua  Itunpekoa

Irakasle bezala jarduten dudana heziketa maila:

0 urte  1 urte  2 urte  3 urte  4 urte  5 urte

Lan egiten dudan instituzioaren/gelaren haur kopurua: \_\_\_\_\_

Haur Hezkuntzako maila hauekin lan egin dut:

0 urte  1 urte  2 urte  3 urte  4 urte  5 urte

Seme-alabak ditut: Bai  Ez

**Jarraian, enuntziatu sorta bat aurkituko duzu zeinean gurutze batekin (X) zure adostasun maila adierazi behar duzun. Mesedez, enuntziatu bakoitzean 5 aukeratetik bat bakarrik hautatu eta ez utzi enuntziaturen bat erantzun gabe. Eta enuntziatu hauei erantzuterakoan, 0-3 etapan pentsatu behar duzu: ziklo honetan jarduten baduzu, egunero bizitzen duzun errealitatea islatu; 2. zikloan jardunez gero, 1. zikloan lan egin duzunean pentsatu; eta ez baduzu inoiz 1. zikloan lanik egin, zure burua etorkizunean lan egin dezakezun gela horietan imajinatu behar duzu.**

**1 = Erabat desados**

**2 = Nahiko desados**

**3 = Ez nago ziur**

**4 = Nahiko ados**

**5 = Erabat ados**

	1	2	3	4	5
1. Egunerokotasuneko zaintzak leku seguru batean aurrera eramaten ditut					
2. Egunerokotasuneko zaintzak egitean (adib.: haurrari pixoihala aldatzea), haur horrengan arreta osoa jartzen dut soilik					
3. Pixoihala aldatzean, hezitzailea bera da haurraren erritmora moldatu behar dena					
4. Haurrari haren emozioak erraztasunez adierazten uzten diot					
5. Egunerokotasuneko zaintzak inolako presarik gabe burutzen ditut, haurrari nire atentzio osoa eskainiz					
6. Haurrari nire laguntza eskaintzen diodan guztietan, hari egiten diodana kontatzen diot, haurra adierazten uzten. Hala nola, kamiseta aldatuko badiot, haren buruarekin kontuz edukiko dudala esaten diot, ondoren besotik hartuko diodala...					
7. Egunerokotasuneko zaintzak haurrarekin bizi ditudan momentu pribilegiatu batzuk direlaren ustean nago					
8. Egunerokotasuneko zaintzak orden berean igarotzen dira. Modu honen bitartez, haur bakoitzak badaki haren txanda noiz izango den					
9. Hezitzailearen eta haurraren arteko harremana egunerokotasuneko zaintzetan (bainua hartzea, jaten ematea, pixoihala aldatzea, komunera joatea, janztea eta eranstea eta osasun azterketak egitea) ematen da batez ere					

	1	2	3	4	5
10. Pixoihala aldatzen diodan bitartean, haurrarekin nagoen guztietan, hari egiten diodana kontatzen diot					
11. Haurra haren bizitzaren subjektua izaten uzten dut haren ekintza ez etenez, askatasuna ahalbidetuz					
12. *Pixoihala aldatzen diodanean, ez du garrantziarik haurrari adierazten/erantzuten uztea <sup>1</sup>					
13. *Sarreretan zein irteeretan, haurrarekin eta haren familiarekin nagoenean, gurasoekin haurraren inguruan 3. pertsonan hitz egiten dut					
14. *Haurra jolasten dagoenean, harengana hurbiltzen naiz elkarri eragiteko					
15. *Beharrezkotzat jotzen dut haurrari ibiltzen laguntzea edo irakastea					
16. Jolasari esker, haurra gai da mundua behatzeko eta ezagutzeko					
17. *Autonomia eta haurra bakarrik uztea nahi duena egiten sinonimoak dira					
18. *Hurrei muxuak eta besarkadak ematea gustuko dut <sup>2</sup>					
19. *Jaioberria dagoen espazioan 3 edo 4 objektu/jostailu baino gehiago barruratzen ditut					
20. Haurrari egunerokotasunean aurki daitezkeen objektu asko eskaintzen dizkiot					

<sup>1</sup> Alderantzizko norantzan doazen itemak izar batekin markatuta agertuko dira.

<sup>2</sup> (Herrán, Orejudo, Martínez, & Ordeñana, 2014)

	1	2	3	4	5
21. Nire eginkizuna hezitzaile gisa, haurrari haren gorputzeko aurkikuntzan akonpainatzea da					
22. Haurrek ikaskuntza autonomoa izatea posible egiten dut. Adibidez, haurra bere kabuz arropa janzteko eta eranzteko gai denean, honen ardura hartzen uzten diet					
23. Haurrak parte-hartze aktiboa izaten ahalbidetzen dut, parte-hartze pasiboa baztertuz. Hots, saiatzen naiz haurraren esplorazioa, kuriositatea eta motibazioa errespetatzen, uneoro esku hartzen egon beharrean					
24. *Haurrak denetarik jan dezan saiatzen naiz					
25. *Garrantzitsua iruditzen zait haurrak platerean/biberoian duen guztia jatea/hartzea					
26. *Haurtxoen motxilak haurrak garraiatzeko modu egokia iruditzen zait					
27. *Haurtxoari trona batean jaten ematen diot					
28. Haur bakoitzaren beharrianak asetzeko, behaketara jotzea beharrezkoa da					
29. *Haurrak jolasten ari direnean, helduaren esku-hartzeak zuzena izan behar du. Esate baterako, haurra pilota batekin jolasten baldin badago, beregana hurbildu eta harekin pilota jaurtitzera eta hartzera jolastuko dut					
30. Haurrarengana jo baino lehen, ezinbestekoa da haurra entzutea, begiratzea eta haurrak sentitzen duena ulertzen saiatzea					
31. *Batuetan saihetsezina da haurrak menperatzen ez dituen posturetan jartzea					

	1	2	3	4	5
32. *Haurrak portaera txar bat duenean, pentsalekura jotzen dut					
33. Haurraren kooperazioa errazten saiatzen naiz. Hots, arropa aldatzen diodanean, haurra itxaroten dut eta haren erritmoa errespetatzen dut					
34. *Haurrarekin hitz egitean, ez da beharrezkoa harekin beti tonu uniforme erabiltzea					
35. Hezitzailearen zeregina beharrezkoa da haurrari sortzen zaizkion gatazkeei irtenbidea eman ahal izateko					
36. *Haurrek urduri jartzen nautenean, ahots tonua igotzen dut. Batzuetan, inkontzienteki <sup>3</sup>					
37. *Ezinbestekotzat jotzen dut sehaska gelan, haurrek ispilu bat hurbil izatea, ispiluan haien gorputz irudia hauteman dezaten					
38. Haurrak jaiotze momentutik munduan jarduteko hainbat gaitasun ditu					
39. Jaioberriak beste pertsonak behar ditu garatzeko					
40. *Ahaleginak egin behar ditut haur guztiak modu berdinean tratatzeko <sup>4</sup>					
41. Helduak haurrarekin harreman pribilegiatua eraikitzeko, heldu bakoitzak 2-3 umeren ardura eduki beharko luke					
42. Haurrak heldu batekin sortzen duen harreman pribilegiatua segurtasun afektiboaren eta gizarteratzearen oinarriko baldintza da					

<sup>3</sup> (Herrán, Orejudo, Martínez, & Ordeñana, 2014)

<sup>4</sup> (Herrán, Orejudo, Martínez, & Ordeñana, 2014)

	1	2	3	4	5
43. Haurra ezin da libreki garatu baldin eta haren inguruan ez badu konfiantzazko harremanik					
44. Oso garrantzitsua da haur jaioberriak ongizate handiena esperimentatzea, haren irudi/errepresentazioa eraikitzen joateko					
45. Haurrek hamakak erabiltzea aukera desegokia dela uste dut; izan ere, besteak beste, espazioa esploratzea eragozten diete					
46. *Taka-takak (andador) haurrari jarrera natural bat mantentzen laguntzen dio					
47. *Haurtxoen gurdien erabilera ondo ikusten dut					
48. *Haurtxoen motxilen erabilera ondo ikusten dut					
49. *0-3 etapan, jolas elektronikoen, telebistaren zein tablet-en erabilera zuzena da					
50. Haur Hezkuntzako Graduan, 0-3 etaparen inguruko formakuntza nahikoa jaso dut					
51. Goi-mailako Graduan, 0-3 etaparen inguruko formakuntza nahikoa jaso dut					
52. Pikler-Lóczy metodologiaren inguruko formakuntza jaso dut					
53. 0-3 etaparen inguruko formakuntza kurtsoen bitartez edota nire kabuz informatzen jaso dut					
54. 0-3 etaparen inguruko ezagutza handiagoa jaso dut nire lanbidearen ariketan					

	1	2	3	4	5
55. Ezagutzen ditut behaketa on bat egiteko jarraitu behar diren parametroak					
56. *Haurrak postura berriak bereganatzeko posturarik egokiena haurra buruz behera jartzea da					
57. 0-3 etapan hezitzaile bezala lan egiten gustura sentitzen naiz					
58. 0-3 etapa etaparik garrantzitsuena dela uste dut					
59. Etorkizunean, ziklo hezigarri honetan jarraitzea gustatuko litzaidake <sup>5</sup>					
60. Zikloko lanari modu eraginkorrean aurre egiteko prestakuntza nahikoa dudalaren ustean nago <sup>6</sup>					
61. Profesionalki ez naiz gutxietsita sentitzen <sup>7</sup>					
62. Haur Hezkuntzako lehenengo zikloari (0-3) garrantzi nahikoa ematen zaio					
63. Haur Hezkuntzako kurrikuluma 0-3 etapari erabat egokituta dago					

<sup>5</sup> (Herrán, Orejudo, Martínez, & Ordeñana, 2014)

<sup>6</sup> (Herrán, Orejudo, Martínez, & Ordeñana, 2014)

<sup>7</sup> (Herrán, Orejudo, Martínez, & Ordeñana, 2014)



Espazio honetan egokitzat jotzen duzun edozein ohar gehi dezakezu:

Eskerrik asko zure laguntzagarik.